

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Huts zuzenketa 2015/2671 iragarkian, maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduan, zeinak onartzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia

Hutsa hauteman denez 2015/2671 iragarkian, 2015eko maiatzaren 29ko ALHAOn (64 zk.) argitaratuan, osorik argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 17a

Deputatu Nagusiaren Idazkaritza Tekniko-Juridikoko Zerbitzuaren burua
JUAN DANIEL MARTÍNEZ MONGE

Maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Agindua, onartzen duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen

Otsailaren 14ko 79/2012 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lan poltsen arloan gaur egun indarrean dagoen araudia onartu zen.

Haren funtzionamenduak eman digun esperientziak erakutsi digu lehenagoko araubidearen zenbait alderdi aldatzea onerako izan dela aldi baterako lan poltsak kudeatzearen kalitatea hobetzeko, halako moldez non indartu egin diren oinarrizko zenbait printzipio, hala nola publikitate, merezimendua, objektibotasuna eta gardentasuna.

Bereziki garrantzitsua izan da "Hobekuntza" izenenez definitu den hautaketa prozedura, haren bidez aukera gehiago baitaude goragoko maila bateko lanpostuetan edo kontratu luzeagoa daukaten lanpostuetan jarduteko, modu horretan hobetu egiten direlarik aldi baterako lan eskaintzek berekin dakarten mugak, betiere kontuan izanda merezimenduaren printzipioa. Hautaketa prozedura horren bidez, karrerako funtzionarioei ere aukera eman zaie goragoko maila bateko lanpostuetan jarduteko bitarteko funtzionario gisa, horretarako kasuan kasuko lan poltsetan egon behar izan dutelarik.

Edonola ere, nabarmena izan den arren lan poltsen kudeaketaren hobekuntza, egia da bi eratako gorabeherak sortu direla, eta horren ondorioz "Hobekuntza"ren definizioa berriz ere planteatu behar da, bai eta lan poltsen funtzionamenduaren dinamika ere.

Alde batetik, lan poltsetako hainbat dei egon dira, ordainsarrietan onura nabarmena eragin arren ez direnak egon definituta hobekuntza gisa oraingo araubidean; beraz, lan poltsetan libre egon den lehenengo pertsonari deitu zaio, eta ez zaie hobekuntza aplikatu lan poltsetan hurrenkera hobean egonda ere lanean egon diren pertsonari.

Horregatik, bidezkoa irizten zaio hobekuntzako beste kasu bat hartzea kontuan; hau da, lan poltsa jakin batetik deia egiten denean lanpostu bat betetzeko, eta hori dela-eta lanpostu horretako ordainsariak hobeak badira deia jaso duena une horretan betetzen ari den lanpostuko ordainsariak baino, lan poltsaren hurrenkerari jarraitu behar zaio, nahiz eta hurrenkeran lehenengo dagoena lanean egon.

Bestalde, badira zenbait alderdi "Hobekuntza"ren araubidean, oztopatu egiten dutenak pertsonak behar adinako azkartasunez hastea lanean lanpostu berrietan, hala nola hobekuntzako eskaintza bat baino gehiago jasotzea -betiere deia lan poltsa berdinetik egiten ez denean-, edo hobekuntzari uko egiteak ondorioz ez eragitea eta pertsona berari hobekuntzak mugagabe eskaini behar izaten jarraitzea; gainera, horrek eragozpenak eragiten dizkie unitateei, eta batzuetan haiek geldiarazi, kontuan izan behar delako iritsi berriak lanpostura egokitu behar direla eta hango egitekoak ikasi behar dituztela. Halaber, saihestu egin behar da beste lanpostu baterako deitzea, kontuan izanda antolamenduak ahalegin handia egin duela informatikako ekipoak zein laneko beste tresna batzuk prest izateko eta lanpostura etorri berri denari erakutsi beharrekoa erakusteko lanpostuan behar bezala jardun dadin. Antolamendu lan handi hori kontuan izan behar da.

Bestalde, egoki irizten zaio seigarren artikuluko 2. paragrafoko c) idatz zatia berrikusteari, modu horretan saihestu egingo baita egokitzen ez diren izendapenak egitea, baldin eta kasuan kasuko lan poltsako hurrenkera dela-eta izendapen hori egokitzen ez bada.

Horrez gain, borondatez egiten diren uko egiteen ondorioz sortzen den egoera konpondu behar da. Batzuetan egun batetik bestera gertatzen dira, lehenago ezer esan gabe, eta horrek eragozpen handiak sorrarazten dizkie zerbitzuak jasotzen dituzten unitateei.

Partezko aldaketa horiek araubidean eragiten duten sakabanaketa saihestearren, komeni da aldaketa horiek foru arau berri batean eranstea, zeinak osorik arautuko baititu lan Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsak.

Proposamena langileen ordezkarietara helarazi zaie negoziatzeko, eta entzun egin zaie.

Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta azaroaren 8ko 60/2012 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsak arautzen dituen araudia onartzea, zeina foru agindu honen eranskin modura jarri baita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da otsailaren 14ko 79/2012 Foru Agindua, onartzen duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia.

AZKEN XEDAPENA

Onartzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean foru agindu hau, ALHAOn edonoiz argitaratzen dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 15a

Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazio Saileko diputatua
JOSÉ ZURITA LAGUNA

ERANSKINA

Lehenengo artikulua. Lan poltsaren kontzeptua

Lan poltsa da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrak kudeatutako aukeratze prozesuetan parte hartu duten pertsonen zerrenda, kasuan kasuko deialdietako arauetan kontrakoa berariaz adierazi ezean.

Bigarren artikulua. Lan poltsak zein kasutan erabil daitezkeen

1- Lanpostuen behin-behineko hornikuntza.

Bidezkoa izango da lan poltsak bitarteko funtzionarioa izendatzeko erabiltzea karrerako funtzionarioentzat erreserbatuak dauden eta hutsik egon edo titularrak edo okupatzaileak aldi baterako kanpoan aurkitzen diren lanpostuak hornitu behar direnean, baldin eta Funtzio Publiko Zuzendaritzak haiek betetzea erabakitzen badu.

2- Aldi baterako programak.

Lan poltsak aldi baterako programak gauzatzeko bitarteko funtzionarioa izendatzeko erabiliko dira. Izendapenean edo haren eranskinean izendapen hori egiteko zer premia dagoen zehaztu beharko da; baita aldi baterako programari zer egiteko edo lan egotzi zaizkion eta hura noiz aurreikusten den amaitzea eta amaitzeko zerk eragiten duen ere.

Hirugarren artikulua. Zein egoeratan egon daitezkeen lan poltsako partaideak

1). Libre. Ondoko egoera hauetakoren batean aurkitzen ez dena:

2). Lanean. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren esparruan lanean ari dena. Egoera honetan dauden langileak "libre" egoerara pasatuko dira zerbitzu emateri uzten diotenean, eta, ondorioz, lan eskaintzak jaso ahal izango dituzte.

3). Aldi baterako baja. Lan poltsetako partaideak egoera honetara pasatuko dira ondoko kasu hauetan:

3.1 Deia egin baino lehenago, zein lan poltsatakoak diren, han aldi baterako baja emateko espresuki eskatzen baldin badute, bidezkozten duen arrazoirik adierazi beharrik gabe. Kasu hauetan, aldi baterako bajaren eskaera Giza Baliabideen Zerbitzura bidali beharko da, idatziz, eta gutxienez 5 hilabete iraungo du, eskaeraren aurkezpen datatik aurrera.

3.2 Behar bezala kreditaturik dauden bidezko arrazoiengatik lan eskaintza bati uko egiten badiote. Bidezko arrazoiak hauek dira:

– Aldi baterako ezintasun egoerak.

– Haurdunaldi, erditze edo edoskitze lizentziak edo adopzio edo harrerarako lizentziak hartzeko eskubidea ematen duten egoerak.

– Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren esparrutik kanpo lan egiten egotea.

Arrazoi horiek 15 eguneko epearen barruan kreditatu beharko dira, deia egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldi baterako baja egoerara pasatzea eragin zuen arrazoia amaitu eta gero, interesdunak horren berri eman beharko dio idatziz Giza Baliabideen Zerbitzuari 10 eguneko epean, horren egiaztagiriak erantsiz.

4). Behin betiko baja. Egoera honetara pasatuko dira:

a) Bigarren aldiz lan eskaintza bati uko egin diotenak, salbu eta uko egiteak artikulua honetako 3.2. puntuan aurreikusten diren arrazoiengatik eta baldintzekin aldi baterako baja egoerara pasatzea eragiten badu.

b) Beren borondatez, bigarren aldiz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrekiko lan loturan baja eragiten dutenak, salbu eta baja hori seigarren artikuluko 3. puntuan aurreikusitako hobekuntza prozeduraren bidezko aukeraketa berri batengatik izan bada.

c) Bigarren aldiz 15 eguneko epearen barruan aldi baterako baja egoerara pasatzea eragiten duen arrazoiaren egiaztagiria aurkeztu ez eta artikuluko honetako 3.2. puntuan aurreikusten diren baldintzetan aldi baterako baja egoeraren amaiera jakinarazi edo kreditatzen ez dutenak.

d) Beren izendapenerako eskatutako titulazio eskakizunak betetzen ez dituztenak, kasuan kasuko lan poltsa sortu zuen hautaketa prozesuaren deialdiko arauetan ezarritako momentuan.

Nolanahi ere, behin betiko baja dagokion lan poltsan bakarrik gertatuko da.

5). Aurkitu ezinik. Lan poltsetako partaideak, Giza Baliabideen Zerbitzuak ez badu haiekin harremanetan jartzerik izan zazpigarren artikuluko 2. puntuan aurreikusten den moduan, aurkitu eziniko egoerara pasatuko dira.

15 eguneko epean, haren egoera aurkitu ezinikoa dela posta ziurtatuaz eta hartu izanaren adierazpenarekin jakinarazi eta gero, interesdunak ez baldin badu adierazten, Giza Baliabideen Zerbitzura bidalitako idazki baten bidez, egoera hori konpondu nahi duela, deia egiten den lan poltsako azken posiziora pasatuko da.

Azaldutako egoera bigarren aldiz gertatzen bada, deia egiten den lan poltsan behin betiko baja emango zaio.

6). Lan eskaintza bati lehenengo aldiz uko egitea.

Lan poltsetako partaideak, behin bakarrik, lan eskaintza bati uko egiten badiote, izendapen bati beren borondatez uko egiten badiote edo aldi baterako baja egoerara pasatzea eragiten duen arrazoiaren egiaztagiria ez badituzte aurkezten 15 eguneko epearen barruan eta ez badituzte jakinarazten edo kreditatzen aldi baterako baja egoeraren amaiera artikuluko honetako 3.2. puntuan aurreikusten diren baldintzetan, beren jatorrizko lan poltsako azken posiziora pasatuko dira.

7). Aurreabisua. Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, izendapenari borondatez uko egiten bazaio hamabost egun lehenago jakinarazi behar da. Ez bada jakinarazten, ez dira ordainduko hartu gabe dauden opor egunak.

Laugarren artikulua. Zehapen prozedura

Zerbitzuko zuzendariak, non bitarteko funtzionarioa lanean ari baita, hura kasuan kasuko lan poltsatik behin betiko kanporatzeko eskatu ahalko du, Euskal funtzio publikoaren Legean larrizat edo oso larrizat jotako faltak egiteagatik.

Horretarako, dagokion Sailak hari egotzen zaizkion egintzak eta egindako falta jasotzen dituen txostena idatziko du eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak egitateak zehaztu eta egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak aginduko ditu eta, bereziki, zehatzekoak izan daitezkeen erantzukizunak zehazteari begira egiten diren proba guztiak.

Zehapen prozedura honetan, interesdunaren eskubideak bermatuko dira eta, betiere, entzunaldia emango zaio interesdunari eta langileen ordezkariak ere entzungo dira.

Hartzen den erabakiaren berri emango zaio Giza Baliabideen Zerbitzuari, hala badagokio, funtzionarioa kasuan kasuko lan poltsatik behin betiko kanporatzeko.

Bosgarren artikulua. Lan poltsen lehentasun ordena

Ondoko lehentasun ordena hau finkatu da:

1). Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren esparruan 2007tik aurrera onartutako enplegu publikoaren eskaintzetako aukeratze prozesuetan sortutako lan poltsak, berriagoi zaharragoen gainetik lehentasuna emanez. Lan poltsa horietatik deiak egiteko, ondoko hurrenkera honi jarraituko zaio:

a) Oposizio aldian nahitaezko ariketa kanporatzaile guztiak gainditu dituzten eta lanposturik lortu ez duten izangaiak. Hurrenkera lortutako puntuazio osoaren arabera ezarriko da, lehiaketa aldia barne dela.

b) Nahitaezko ariketa kanporatzaile gehien gainditu dituzten izangaiak, gainditutako ariketa horietan guztira lortutako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, nahitaezko ariketa kanporatzaileetatik lehenengoa bakarrik gainditu dutenen zerrenda bukatu arte.

2). Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2001erako enplegu publikoaren eskaintzako aukeratze prozesuetatik sortutako lan poltsak.

3). Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren esparruan 2001erako enplegu publikoaren eskaintzaz geroztik lan poltsak eratzeko egin diren deialdi espezifikoeetatik sortutakoak, berriagoei zaharragoen gainetik lehentasuna emanez.

4). Beste lan poltsak, seigarren artikuluan xedatutakoaren arabera.

2001eko enplegu publikoaren eskaintza baino lehenagoko lan poltsa guztiak baliorik gabeak izango dira.

Seigarren artikulua. Hautaketa prozedura

1). Prozedura orokorra:

“Libre” egoeran daudenei deituko zaie, bosgarren artikuluan ezarritako lehentasun hurrenkerari jarraituz, bete behar den lanpostuaren ezaugarrietarako aproposak diren lan poltsetatik. Lan lotura hasteko garaian aldi baterako ezintasuneko egoeran aurkitzen den pertsonarik ezin izango da aukeratu.

Lan poltsa bat aproposa izango da lanpostu bat edo eginkizun jakin batzuk betetzeko baldin eta lan poltsak jatorri duen deialdiaren xede diren titulazio talde eta eskala, azpieskala edo klase berberakoa bada lanpostua, edo haietan kokatzen badira eginkizunak.

Egiteko berezien eta lanbideetako kideen klaseetako lanpostuak direnean, lan poltsa aproposa zein den zehazteko, horrez gain kontuan edukiko da bete behar den lanpostuko eginkizunak bat datozela kasuan kasuko deialdian definitutakoekin.

Azaldutakoaren arabera lan poltsa aproposik ez badago beste poltsa batzuk erabili ahal izango dira, baldin eta antzekotasunik badute bete beharreko eginkizunen eta eskatutako titulazio mailaren aldetik, eta pertsona hautatuak lanpostuen zerrendan ezarrita dauden eskakizunak betetzen baditu. Halakoetan, eskaintza onartzeak ez du aldatuko pertsona hautatuaren “libre” egoera, eta hari uko egiteak ez du zigorrik ekarriko.

Era berean, eta soilik lan poltsa aproposik ez badago, 2007rako enplegu publikoaren eskaintzaren deialdian ezarritako lehenengo ariketa egin bai baina gainditu ez zuten pertsonengana jo ahal izango da, baldin eta gutxienez 3,75 puntu lortu bazuten ariketa horretan. Deiak puntuazio hurrenkerari hertsiki jarraituz egingo dira.

Aurretik esandako aukerak agortu badira, eta datu objektiborik badago pentsarazten dutenak sortu den berriazko langile beharra aurrerantzean ere sarritan gertatuko dela, langileen ordezkarietara entzun ondoren, deialdi espezifiko bat egingo da 5 hilabeteko epean, esandako beharra sortzen den unetik aurrera. Hala ere, deialdi horretatik sortutako lan poltsa eratu arte agerian jartzen diren langile beharrak beste administrazio publiko batzuetako lan poltsen birtutez bete ahal izango dira, baldin eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate eskakizunak betetzen badituzte, eta ondoko hurrenkera honi jarraituko zaio:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

b) Gazteriaren Foru Erakundea.

c) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

d) Kasuan kasuko udal eta kuadrillak, baina Gasteiztik kanpo dauden eskualdeetako nekazaritza bulegoetan eta orobat Gasteiztik kanpoko beste toki batzuetan dauden beharrak estaltzeko baino ez.

e) Gasteizko Udala.

Ohikoak ez baizik une jakinetakoak diren langile beharrak betetzeko diren kasuetan, beste administrazio publiko batzuetako lan poltsak erabili ahal izango dira, lan poltsetarako deialdi espezifikoak egin beharrik gabe.

Salbuespen moduan, zenbait beharrian betetzeko dauden berezitasunen arabera, eta langileen ordezkariari entzun eta gero, enpleguko zerbitzu publikoetara jo ahal izango da. Halako kasuetan, aukeraketa Giza Baliabideen Zerbitzuak egingo du, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuz.

2). Zuzeneko hautaketa:

a) Funtzionario bat arrazoi batengatik ordeztzen bada eta, ordeztzen ahal izan bada, lanpostura itzultzen ez bada beste arrazoi batengatik, eta horrek izendapen berri bat egitea badakar, lanpostua aldi baterako betetzen aritu izan den pertsona aukeratuko da zuzen-zuzenean.

b) Programako lanpostuak, beren eginkizunek denboran irauteagatik, lanpostu zerrendan finkatzen direnean, haiek betetzen dituztenak bitarteko funtzionario izendatuko dira, finkatutako lanpostu horietan jarduteko.

c) Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrek sortutako lan poltsa batetik deitua izan den bitarteko funtzionario batek betetzen zuen lanpostua edo eginkizunak uzten baditu eta, 4 hilabete pasatu baino lehen, hari dagokion zuzendaritzaren idazki baten bidez hura atxikita zegoen zerbitzuaren barruan lanpostu bera edo eginkizun berberak betetzea eskatzen bada, pertsona berbera izendatuko da, behin bakarrik. Urtebete baino gutxiago iraungo duela aurreikusita dagoenean baino ez da egingo izendapena.

Aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera deitzeko egokieran pertsona bat baino gehiago egonez gero, bosgarren artikuluan finkatutako lehentasun hurrenkerari jarraituz dei egin behar zaionak izango du lehentasuna.

3) Hobekuntza:

“Lanean” dauden pertsonak “libre” egoeran daudela iritziko zaie eta hobekuntzarako deituko zaie ondoko kasu hauetan:

a) Urtebete baino luzaroago iraungo dutela aurreikusten diren lanpostuak betetzeko eskaintzak badaude, baldin eta deia jasoko dutenak ez badira betetzen ari talde bereko lanpostu bat, urtebete baino luzaroago iraungo duen aurreikuspena daukana.

b) Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioei deituko zaie, urtebete baino luzaroago iraungo dutela aurreikusten diren lanpostuak betetzeko, baldin eta goragoko maila bateko talde bateko lan poltsetatik deitzen bazaie.

c) Lanaldi partzialean lanean ari direnei lanaldi osoz jarduteko deituko zaie, baldin eta bitarteko funtzionario aritzeko izendapen berriak 6 hilabete baino luzaroago iraungo duela aurreikusten bada.

d) Lanean ari direnei deituko zaie, baldin eta unean une betetzen ari den lanpostuari esleitutako ordainsarien ehuneko hamarreko hazkundea badakar beste lanpostu bat betetzeak eta izendapena urtebete baino luzeagorako bada.

Lan poltsa batetik abiatutako hobekuntza ez zaie aplikatuko lehenago lan poltsa horretatik egindako hobekuntza baten ondorioz lanean ari diren pertsonari, salbu eta d) idatz zatian jasotako kasua bada tarteko.

Hobekuntzarako eskaintza lan poltsa desberdinetatik badator, bigarren hobekuntza baterako aukera baino ez da egongo.

Hobekuntza eskaintza bati uko eginez gero, ez da egongo beste eskaintzarik lan poltsa berdinetik urtebete igaro arte.

Hobekuntza bezala eskaintako izendapenetatik salbuetsiko dira egoerak, zeinetan seigarren artikuluko 2) paragrafoan jasoriko zuzeneko hautaketaren prozeduraren bidez betetzen diren lanpostuak.

Zazpigarren artikulua. Lan poltsen kudeaketa

1) Seigarren artikuluan jasotzen diren prozeduren arabera egingo da deia, eta zuzendaritzetik jakinarazitako langile eskaerak kontuan hartuz, baldin eta aldez aurretik Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak haiei oniritzia ematen badie. Giza Baliabideen Zerbitzuak kasuan kasuko eskaerari emandako adostasun hurrenkerari jarraituz hautatuko da funtzionarioa. Adostasun hori eskaera burututzat jotzen den garaian emango da. Pertsona hautatua lan poltsan zein egoeratan dagoen kreditatzen duen egiaztagiria erantsiko zaio espedienteari momentu horretan.

2) Lan eskaintzen jakinarazpena egindako saioaren eta, hala badagokio, komunikazioa egin izanaren konstantzia utz dezakeen edozein bidetatik egingo da.

Lan eskaintza hasiera batean telefonoz egingo da, eta hiru saio egingo dira egun berean, gutxienez ordu erdi bat igaro behar delarik horietako edozeinen eta hurrengoaren artean.

Esandako hiru saioak egin eta gero, ezinezkoa izan bada pertsona hautatuarekin komunikatzea, SMS bat bidaliko da haren telefono mugikorrera, eta e-maileko mezu bat, jaso eta irakurri izanaren agiriarekin, zerrendetan sartuta dauden pertsona guztiek Giza Baliabideen Zerbitzuari eman beharko dioten helbidera. Zerbitzu horrek igorri diren SMSen, e-maileko mezua eta, jasotzekotan, irakurri izanaren agiriaren kopia erantsiko dio espedienteari.

Lan eskaintza hitzezko zuzeneko komunikazio baten bidez ez bada egin, pertsona hautatuak Giza Baliabideen Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dira egun baliiodun bateko epean. Epe hori eskaintzaren jakinarazpena bidaltzen den unetik kontatuko da.

Egun baliiodun bateko epea igarota pertsona hautatuak ez badira harremanetan ipini Giza Baliabideen Zerbitzuarekin, pertsona hautatuen telefonora edo telefonoetara egindako deien egiaztagiria eskatuko zaio Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari. Agiri hori espedienteari erantsita geratuko da.

3) Pertsona hautatuak egiten zaion lan eskaintza zehatzaren berri jasotzen duen unetik aurrera, 2 egun baliiodun izango ditu hura onartzen duen edo onartzen ez duen jakinaraz dezan. Eskaintzari uko egitea betiere idatziz egin beharko da.

Jakinarazpen hori ez bada egiten, deituko zaien lan poltsan azken posizioan egotera igaroko dira.

4). Derrigortasun data igarota daukaten hizkuntza eskakizuna esleituta daukaten lanpostuak betetzeko, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten pertsoneri deituko zaie, lan poltsa bakoitzeko hurrenkerari jarraituz.

5). Lanpostuak hornitzeko eta/edo hornidura eta jardute eskakizunak dauzkaten eginkizunak betetzeko, titulazio eskakizuna eta aurreko 4) zenbakian ezarritakoa bete beharko da, eta haiek egiaztatuta dauzkaten pertsoneri deituko zaie. Datu horiek Giza Baliabideen Zerbitzuaren erregistroetan agertzen ez badira, zerbitzu horrek beharrezko informazioa eskatu beharko die lan poltsan sartuta daudenei, eta izendapena egin baino lehenago egiaztatu beharko dute eskatutakoa betetzen dutela.

6). Hizkuntza eskakizunak eranstea:

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsak osatzen dituzten pertsonak edozein momentutan aurkeztu ditzakete beren lan poltsak eratu eta geroago lortutako euskarazko hizkuntza eskakizunak.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzen den momentutik aurrera, derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetarako deiak jasotzeko balio izango du, baldin eta egiaztatutako hizkuntza eskakizuna eskatzen dena edo hura baino maila altuagokoa bada.

Lan poltsa eratu eta geroago egiaztatzen bada egokitzen den hizkuntza eskakizuna, lan poltsari erantsiko zaio datu hori baina horrek ez du handituko interesdunaren azkeneko puntuazioa lan poltsan, eta hura eraterakoan ezarritako hurrenkera mantenduko da.

Hizkuntza eskakizunak lortu izana Giza Baliabideen Zerbitzuan egiaztatu beharko da, titulu edo ziurtagiri ofiziala aurkeztuz.

Zortzigarren artikulua. Berdinketa kasuak, lan poltsa batean lortutako puntuazio osoan

Foru agindu hau indarrean jartzen den unetik hasitako hautaketa prozesuetatik abiatuak, haien arauetan bestelakorik xedatu ezean, izangaien artean berdinketarik gertatuz gero, hurrenez hurren ondoko irizpide hauek kontuan hartuz ezarriko da hurrenkera:

- 1). Berdinketarik izatekotan, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala eta klaseetan, salbu eta beste izangaiengan sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.
- 2). Oposizioaldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3). Oposizioaldiko azken ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4). Oposizioaldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 5). Lehiaketaaldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 6). Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, denbora hori lehiaketaaldian balioetsi beharreko merezimendua baldin bada deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoaren arabera.

Bederatzigarren artikulua. Izendapenen eta, hala egokituz gero, utzarazpenen proposamenak jakinaraztea langileen ordezkari

Bitarteko funtzionarioak izendatzeko proposamenak langileen ordezkari jakinaraziko zaizkie, ondoko informazio honekin batera:

- 1) Deitzeko erabiliko den lan poltsaren identifikazioa.
- 2) Aukeratze prozedura, orokorra, zuzeneko hautapeneko edo hobekuntzako den zehaztuz.

Hamargarren artikulua. Lan poltsen publizitatea

Lan poltsak eratu eta gero, haien Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Publikoaren Atarian (<http://web.alava.net/PortalEmpleo/>), Arabako Foru Aldundiaren iragarkien taulan eta, hala badagokio, deialdi bakoitzean aurreikusitako publizitate bideetan argitara emateko aginduko da, eta behintzat hilabetean behin eta on-line argitaratuko dira, baliabide material eta pertsonalek ahalbidetzen badute.

Hamaikagarren artikulua. Bitarteko funtzionarioaren izendapenen amaiera

Hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko izendatutako bitarteko funtzionarioen lan lotura indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera bukatuko da.

Programa bat gauzatzeko izendatutako bitarteko funtzionarioen lan lotura izendapenean aurreikusten den datan bukatuko da. Data horren aldaketa gutxienez hilabete lehenago eskatu beharko da eta dagokion zuzendariaren idazki arrazoitua beharko da hartarako.

Bitarteko funtzionarioak zerbitzua ematen bukatzen duenean, hasiera batean zeukan hurrenkera postuan kokatuko da ofizioz, dei berrien zain.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Zerbitzu eginkizunak arautzen dituen araudia.

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean zerbitzu eginkizunak arautzen dituen araudian xedatutakoaren kalterik gabe aplikatuko da araudi hau.